

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO
ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

0087 LI Foru Agindua, 2021eko martxoaren 1 ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan behien infekziozko errinotrakeitisa (IBR) prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programaren derrigortasuna ezartzen duena.

Behien infekziozko errinotrakeitisa (aurrerantzean «IBR»), I motako (HVB-1) behien herpes birusak eragindako gaixotasun infekziozko bat da; animalietan arnasa hartzeko eta ugaltzeko arazoak sorrarazten dituena, batzuetan agerikoak ez direnak (subklinikoak), eta galera ekonomikoak sor ditzake ugalkortasun arazoengatik, bai eta animaliak, hazia, obuluak eta enbrioiak merkaturatzeko murrizketengatik ere.

Europako Batzordearen 2004ko uztailaren 15eko 2004/558/EE Erabakiaren bidez, Kontseiluaren 64/432/EEE Zuzentaraua aplikatzen da, Europar Batasuneko herrialdeen artean behi espezieko abereak elkartrukatzeko berme osagarriei dagokionez. Horren arabera, gaixotasunak murrizketa komertzial handiak dakartza berekin, hala nola abere talde seropositibo haziak, obuluak eta enbrioiak merkaturatzeko debekua; eta kutsatuta dauden animalia biziak garraiatzeko debekua, bai gaixotasunik gabeko herrialdeetara edo guneeetara, bai gaixotasuna kontrolatzeko eta desagerrarazteko programa onartuta daukaten herrialdeetara edo guneeetara, salbu eta osasun neurri espezifikoko batzuk betetzen badituzte.

Europar gero eta herrialde gehiagok dituzte Europar behien infekziozko errinotrakeitisa (IBR) kontrolatzeko eta desagerrarazteko programak. Espainiar estatuan, 2019ko irailaren 27ko 554/2019 Errege Dekretuaren bidez, behi aziendako ustiategiengan IBRa prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko ekintzen oinarriak ezarri ziren, baita gaixotasun horren aurka borrokatzeko borondatezko programa bat ere. Era berean, behi aziendako ustiategiak lortu dezaketelako IBRaren aurkako osasun kalifikazio ofizial desberdinak zehaztu ziren eta kalifikazio horiek lortzeko eta mantentzeko baldintzak ere adierazi ziren bertan.

Bestalde, Animalien osasunari buruzko 8/2003 Legeak, apirilaren 24koak, xedatzen du, hainbat ustiategitatik datozen abereak biltzen dituzten ustiategiak eskakizun bereziak bete behar dituztela beren azpiegiturari, kokapenari eta osasun kontrolari dagokienez, eta bereziki, instalazio horietan sartzen diren animalia partida bakoitzaren jatorrizko ustiategiaren osasun egoerari dagokionez. Era berean, hau ere xedatzen du: hala badagokio, animalia guztiak osasun kalifikazio jakin bat duten ustiategitakoak izateko betebeharra ezarri ahal izango dela.

Kontuan hartuz IBRaren kontrol programa boluntario gisa mantentzeak Gipuzkoako abeltzaintza ustiategiaren egungo osasun egoera okertzeko arriskua ekar dezakela, eta etorkizuneko programa hori nahitaez aplikatzea zailtzea, Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusiaren iritziz, egokia eta komenigarria da lehenbailehen ezartzea Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan 554/2019 Errege Dekretuak ezarritako behi erri-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA,
TURISMO Y MEDIO RURAL

Orden Foral 0087 LI, de 1 de marzo de 2021, por la que se establece en el Territorio Histórico de Gipuzkoa la obligatoriedad del Programa de Prevención, Control y Erradicación de la Rinotraqueitis Infecciosa Bovina (IBR).

La rinotraqueitis infecciosa bovina (en adelante «IBR») es una enfermedad infectocontagiosa causada por el herpesvirus bovino tipo I (HVB-1), que ocasiona en los animales signos respiratorios y reproductivos, en ocasiones inaparentes (subclínicos) y que puede ocasionar pérdidas económicas por los problemas de infertilidad, así como por las limitaciones al comercio de animales, semen, óvulos y embriones.

De acuerdo con lo establecido por la Decisión 2004/558/CE, de la Comisión, de 15 de julio de 2004, por la que se aplica la Directiva 64/432/CEE del Consejo en lo que respecta a las garantías adicionales para los intercambios intracomunitarios de animales de la especie bovina, la existencia de esta enfermedad implica importantes limitaciones comerciales como la prohibición de la comercialización de semen, óvulos y embriones de rebaños seropositivos y prohibición del transporte de animales vivos infectados a aquellos países o zonas que han sido declarados libres o que tienen un programa de control y erradicación aprobado, salvo que se cumplan una serie de medidas sanitarias específicas.

Cada vez son más los países que tienen en marcha programas de control y erradicación en Europa de la rinotraqueitis infecciosa bovina o IBR. El estado español, mediante el Real Decreto 554/2019, de 27 de septiembre, estableció las bases de las actuaciones para la prevención, control y erradicación del IBR en las explotaciones de ganado vacuno y un programa voluntario de lucha contra dicha enfermedad, así como las distintas calificaciones sanitarias oficiales que pueden obtener las explotaciones de ganado vacuno frente al IBR, señalándose las condiciones para la obtención o el mantenimiento de las mismas.

Por su parte, la Ley 8/2003, de 24 de abril, de sanidad animal, establece que aquellas explotaciones en las que se reúne ganado procedente de distintas explotaciones deberán estar sometidas a especiales exigencias en cuanto a su infraestructura, ubicación y control sanitario, especialmente en lo que se refiere a la situación sanitaria de las explotaciones de origen de cada partida de animales que ingresen en estas instalaciones, pudiéndose, en su caso, establecer la necesidad de que todos los animales procedan de explotaciones con determinada calificación sanitaria.

Considerando que mantener como voluntario el programa de control del IBR puede suponer un riesgo de empeoramiento de la situación sanitaria actual de las explotaciones ganaderas de Gipuzkoa y hacer más difícil la aplicación obligatoria de dicho programa en el futuro, resulta oportuno y conveniente a juicio de la Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial establecer cuanto antes la obligatoriedad del programa de preven-

notrakeitis infekziosoa prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programa.

Hortaz, foru diputatu honek ondorengo Foru Agindua onartzea xedatu du, honako artikulua hauekin:

1. artikulua. Xedea.

554/2019 Errege Dekretuak ezarritako behien infekziozko errinotrakeitisa, edo IBRa, prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programaren derrigortasuna ezartzen da Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan.

Foru agindu honetan araututakoan izan ezik, aipatutako Errege Dekretuaren arabera gauzatuko da programa hori.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru agindu hau Gipuzkoako Lurralde Historikoaren lurralde mugen barruan dauden behien ustiategi guztiei aplikatuko zaie, baita Gipuzkoako Lurralde Historikoaren lurralde mugen barruan deklaraturako azalera duten ustiategi guztiei, horien forma juridikoa eta titulartasuna edozein izanik ere.

3. artikulua. Ustiategien osasun kalifikazioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behien ustiategiak une bakoitzean sailkatuko ditu, behien infekziozko errinotrakeitisaren birusarekiko duten osasun egoeraren arabera, 554/2019 Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako osasun kalifikazioaren arabera.

Kalifikazioa eteteko eta berreskuratzeko, 554/2019 Errege Dekretuaren II. eranskineko c) ataletan xedatutakoari jarraituko zaio.

4. artikulua. Ustiategietako kalifikazio ofizialen erregistroa.

Ustiategiak 3. artikulua arabera kalifikatu ondoren, ustiategien kalifikazioari buruzko informazioa Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean sartuko da, 479/2004 Errege Dekretuak, martxoaren 26koak, abeltzaintza ustiategien Erregistro Orokorra ezartzen eta arautzen duenak, 3.6 artikuluan aurreikusitako moduan.

5. artikulua. Programaren zuzendaritza teknikoa.

Ustiategi bakoitzak albaitari baten zuzendaritza teknikoa izan beharko du, ustiategian programa aplikatzeaz arduratuko dena.

Albaitari arduradunak Gipuzkoako Lurralde Historikoan bete beharreko osasun programak gauzatzeko esleitura izan den enpresaren ardurapean lan egin beharko du.

Albaitariaren ardura izango da osasun programa gauzatzeko behar diren lan guztiak egitea, osasun kontrolak, txertoak aplikatzea eta abere mugimendua kontrolatzea barne, IBRaren osasun kalifikazioak lortzeko eta mantentzeko.

6. artikulua. Laborategi ofiziala.

Fraisoro nekazaritza ingurumeneko laborategia izendatzen da laborategi ofizial, Gipuzkoako Lurralde Historikoan behien infekziozko errinotrakeitisa prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programaren barruan proba diagnostikoak egiteko.

7. artikulua. Arau haustea.

Foru agindu honetan xedatutakoa betetzen ez bada, Animalien Osasunari buruzko apirilaren 24ko 8/2003 Legean ezarritako arau hausteen eta zehapenen arabidea aplikatuko da, bide zibilean, penalean edo bestelakoren batean eska daitekeen erantzukizuna baztertu gabe.

ción, control y erradicación de la rinotraqueitis infecciosa bovina establecido por el Real Decreto 554/2019 en todo el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En consecuencia, este Diputado Foral ha dispuesto la aprobación de la Orden Foral con el siguiente articulado:

Artículo 1. Objeto.

Se establece la obligatoriedad del programa para la prevención, control y erradicación de la rinotraqueitis infecciosa bovina o IBR establecido por el Real Decreto 554/2019, de 27 de septiembre, en todo el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Excepto en lo regulado en la presente Orden Foral dicho programa se ejecutará de acuerdo con el mencionado Real Decreto.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Esta Orden Foral es de aplicación a todas las explotaciones de ganado bovino ubicados dentro de los límites territoriales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, incluyendo, en consecuencia, a todas aquellas explotaciones que cuenten con superficie declarada dentro de los límites territoriales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, independientemente de la forma jurídica y la titularidad de las mismas.

Artículo 3. Calificación sanitaria de explotaciones.

La Diputación Foral de Gipuzkoa clasificará en cada momento las explotaciones de ganado bovino en función de su situación sanitaria respecto al virus de la rinotraqueitis infecciosa bovina de acuerdo a la calificación sanitaria establecida en el artículo 3 del Real Decreto 554/2019.

Para la suspensión y recuperación de la calificación se atenderá a lo dispuesto en el apartado c) del anexo II del Real Decreto 554/2019.

Artículo 4. Registro de calificaciones oficiales de las explotaciones.

Una vez calificadas las explotaciones conforme al artículo 3, la información relativa a la calificación de las explotaciones será incorporada al Registro General de Explotaciones Ganaderas en la forma prevista en el artículo 3.6 del Real Decreto 479/2004, de 26 de marzo, por el que se establece y regula el Registro general de explotaciones ganaderas.

Artículo 5. Dirección técnica del programa.

Cada explotación deberá contar con la dirección técnica de una veterinaria o un veterinario, responsable de la aplicación del programa en su explotación.

El veterinario o la veterinaria responsable deberá trabajar bajo la responsabilidad de la empresa adjudicataria de la ejecución de los programas sanitarios obligatorios en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La veterinaria o el veterinario se responsabilizará de la realización de cuantos trabajos fueran necesarios para la ejecución del programa sanitario, incluyendo los controles sanitarios, la aplicación de vacunas y el control del movimiento pecuario de cara a la obtención y mantenimiento de las diversas calificaciones sanitarias frente al IBR.

Artículo 6. Laboratorio oficial.

Se designa al Laboratorio Agroambiental Fraisoro como laboratorio oficial para la realización de pruebas diagnósticas dentro del Programa de prevención, control y erradicación de la rinotraqueitis infecciosa bovina en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 7. Infracciones.

En caso de incumplimiento de lo dispuesto en esta Orden Foral, será de aplicación el régimen de infracciones y sanciones establecido en la Ley 8/2003, de 24 de abril, de sanidad animal, sin perjuicio de las responsabilidades civiles, penales o de otro orden que puedan concurrir.

Xedapen iragankorra.

Foru agindu hau indarrean jarri aurretik, 554/2019 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera IBRaren aurkako osasun kalifikazioen bat lortzeko diagnostiko probarik egin ez duten usiatuek, 2021eko maiatzaren 30a baino lehen egin beharko dute hori.

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko martxoaren 1a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Garapeneko Departamentuko foru diputatua. (1569)

Disposición transitoria.

Todas aquellas explotaciones que no hayan sido sometidas a pruebas de diagnóstico para la obtención de alguna de las calificaciones sanitarias frente al IBR señaladas en el Real Decreto 554/2019 antes de la entrada en vigor de esta Orden Foral deberán serlo no más tarde del 30 de mayo de 2021.

Disposición final. Entrada en vigor.

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 1 de marzo de 2021.—El diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, Jabier Larrañaga Garmendia. (1569)